


BALIO PROPOSAMENA

Supermerkatuak produktu eskuragarriak izateko beharrari, erosteko modu erosoaren beharrari eta produktu funtzional eta efizienteen beharrari erantzuten dio, besteak beste. Beste modu batera esanda, gure saltokiak zerbitzu azkar, erraz eta efiziente bat eskaintzen dio bezeroari.



Horrez gain, konsziente gara gaur egun pertsonen ordutegi desberdinak dituztela, eta ondorioz beharrezkoa iruditzen zaigu adibidez gauean lan egiten duten langileei gau-zerbitzu bat eskaintzea.

Hori dela eta, gure supermerkatuak asteko 7 egunetan 24 orduz egongo dira irekiak.

Gainera, erosleak ez dira asko desplazatu beharko, hainbat supermerkatu eraikiko baitutugu hiriko puntu ezberdinetan. Horrez gain, gure supermerkatua pilaketak sahiesteko diseinaturik dagoenez (erosketa txikiak egiteko diseinaturik eta bi autokobrantsa kutzekin), denbora asko aurreztuko luke bezeroak.

Horrela, bezeroei gertutasun sententzia transmititzeaz gain, hauek denbora aurreztuko dute.

Bezeroek gure zerbitzua aukeratzearen arrazoiak, eta lehiakideengandik bereizten gaituena, kualitatibo zein kuantitatiboa izan daiteke. Hasteko, estilo eta mota desberdineko produktuak eskainiko ditugu (adibidez, produktuen jatorria lokal nahiz internazionala izan daiteke), eta hauen ontziratzeak ingurunea ahalik eta gutxien kaltetuko du.



Balio kuantitatiboari dagokionez, konsziente gara gaur egun pertsona askoek (proletalgoak) duten egoeraz. Ondorioz, gure produktuak mundu guztiarentzan eskuragarriak izan daitezen, hauen prezioa erlatiboki baxuak izango dira

Dena den, ez gara Euskal Herriko supermerkatu bakarrak. Lehiakortasun asko dago, eta hori dela eta, lehiakideengandik bereiztea beharrezkoa iruditzen zaigu. *Gorringo*, gure supermerkatua, pertsonalizazio eta prezioan bereizten dela esan dezakegu. Hasteko, produktu berdineko hainbat mota desberdin edukiko ditugu; diseinu eta bertsio desberdinak eskainiko ditugu, eta bigarrenik, lehen aipaturako prezio baxu eta eskuragarriak daude.